

aditzea badut

Xabier Lasa

Politikariak baino inuxenteago

Aipagarria Javier Vizcainok sartu zigun ziria, politikarien solasaldian. Ikusirik zenbat antzezle frustratu dabilen politikan, eta ikusirik politikariengandik datorren edozer lotsagarrikeria irensteko prest gaudela, erraza zeukan Vizcainok: politikariak nahastea zirisartzearen egun santuari ohore egiteko. Politikarien solasaldiko azken unean, Gorka Knörr hotsegin zion Vizcainok. Lehen berria eman nahi zigun, adieraziz baietza eman ziotela EITBren eskaerari Eurovisionen kanta zezan, eta

MATXINADA SAIOA HERRI IRRATIAN

Atzo eguerdian hankaz gora jarri ziren kirol galetan Gipuzkoan entzule gehien duen Hiren eguneroko usadioak. Hierarkian Iñaki Mujikaren azpiko den Joseba Urdangarin matxinatu egin zela esan beharko, hura izan baitzen aurkezle. Gaurko eskuzko pilotak saioaren erdia bereganatu zuen, eta euskaraz izan ziren elkarriketa luzeak. Bigarren berri garrantzitsu gisa, berriz, Euskadiren partida izan zen —aurreko urteetan ia ez zuten aipatzen—. Iraganean euskaltzetasunaren erreferentziatzat geneukan irrati horrek, egun, irizpide nahaste galanta dauka.

Knörr bera izan zela hautatua. PSE, PP, EA eta EAJko ordezkariak serio planta jarri zuten fartsa dibertigarrian —txantxa zela jakin-ez jakin—, eta denak poztu ziren berriarekin. Ziriak, ordea, bumeran efektua zeraman berrekin. Ohi den bezala, bestalde, hegoaldeko zenbait prentsa burujabezaleak inuxente eguna barne desioak askatzeko hartzen duenean, ironiaz eta umoreaz baliatuz. Atzoko irratsaioan ere, politikariekin ez ezik politikarien bizkar ere barre egin genuela pentsatu genuen tentelok. Baina egiazki, txantxa amaitu ahala, munduratzaren diren euskal ordezkariakin amesteari berrekin genion. Barre lasai amaigabea jarraitu zutenak Leopoldo Barreda eta Rodolfo Ares solaskideak izan ziren.

PATXO TELLERIA ETB1-EKO 'IRRIKITA' SAIOKO AURKEZLEA ETA GIDOIEN EGILEETAKO BAT

«Umore garratza erabiltzen saiatuko gara bakarriketetan»

‘Irrikitan’ saioa estreinatu berrian aurkezlea da Patxo Telleria, hainbat antzezlanetako kide Mikel Martinezekin.

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Joan den astelehen gauean eman zuten ETB1en *Irrikitan* programako lehenengo atala. Beste sei saio grabatuko dituzte, hainbat aktorek interpretatutako bakarriketekin. Saioko zuzendaria Eneko Olasagasti da, eta aurkezleetako bat Patxo Telleria aktore bizkaitarra. Gaur, 00:25ean emango dute saioa.

■ Nola sortu da *Irrikitan* umorezko saioa?

Tentazioa taldearen eta Koma ekoiztetxearen arteko koprodukzioa da. Bakarriketa pertsonalizatuak eskaini nahi dizkiegu ikus-entzuleei, aktore bakoitzak bere hizkera erabiliz. Aurreneko saioan, Iruñeko euskara, Goierrikoa eta bizkaiera entzun ahal izan ziren. Ildo horretatik jarraitu nahi dugu.

■ Mikel Martinezek eta zuk euskaldun berrien pertsonaiekin jarraitzen duzue.

Bai, *Komeriaka*-n sortu genituen pertsonaiei jarraipena eman nahi izan diegu. Gero eta handiagoa da euskaldun berrien kopurua, eta pentsatzen dugu eurak kontuan hartzea interesgarria dela. Guk geuk barre egiten diogu askotan gure euskaldun berri izaerari.

■ Korrika Kulturalerako egin zenuten *Komeriaka*-k antza

badu programarekin. Antzezlanak, behintzat, arrakasta izan zuen, ezta?


Bai, Korrika bukatu eta gero hainbat lekutatik hasi ziren deitzen, eta antzoki dezentetan aritu ginen. *Euskara sencilloaren manifestoa* antzezlanaren erdian erdiak erdiak egin dugu; formatu txikiko ikuskizun bat da. Telebistarako egiten ari garen saioan, bestalde, euskaraz gain beste gai batzuk jorratuko ditugu.

■ Non grabatzen da saioa?

Guk kafe antzoki baten irudia egin nahi izan dugu. Hasieran, benetako antzoki txiki batean grabatzeko asmoa genuen, baina, azkenean, ETBko plato bat egiten dugu.

■ AEBetan eta Espainian bakarriketa saioek jarraitzaile ugari dituzte. Programak segida izatea posible litzatekeela uste duzu?

Gure merkatua nahiko murrizta da. Baina ikusle gazteentzat egiten da formatu hau, eta pentsatzen dut gazteak erakartzen baditugu aurrera aterako dela. Soziologoek diotenez, ETB1eko batez besteko ikuslea adinekoa da. Pentsatzen dut ETBn muga hori gainditu eta gazteengana heldu nahi dutela. Gure estiloa hortik doa, 40 urtetik beherako ikusle horiengana iristea.



IKUS-ENTZULEAK

EUSKARA

«ETBn ikus-entzule gazteengana heldu nahi dute, eta gure estiloa bide horretatik doa»

«Bakarriketa pertsonalizatuak eskaini nahi ditugu, aktore bakoitzak bere hizkera erabiliz»

■ Bideo-matoia izeneko atalean leiho berri bat ireki duzue. Zein da horren helburua?

Asmoa da jendea erakartzea kontakizun edo pasadizo xeber bat kontatzeko, ez txisteak. Ez dugu nahi hau txiste saioa izatea. Dei zabala egin dugu nahi duenak parte hartzeko. Azpimarratu nahi dugu antzerki eskoletako ikasleek kameraren aurrean trebatu nahi badute hemen badutela aukera bat.

■ Nolako pertsonaia era-

man nahi dituzue bakarriketetan aritzeko?

Planteatzen dugun formatuan, hainbat motatako aktoreak sartu nahi ditugu: batetik, aktore ezagunak (ETBko ikus-entzuleek ezagutzen dituztenak), eta, bestetik, aktore ez hain ezagunak, antzerkian gehiago aritzen direnak. Aktore berriak ere bai. Eta saio bakoitzean gonbidatu berezi bat izango dugu, euskal munduan ezaguna dena beste alor batean. Ahalik eta ordezkaritza zabalena nahi genuke: ber-

tsolariak, idazleak, musikariak, sukaldariak eta abar.

■ Barrea eragiteko gogoz jarraitzen duzue, beraz?

Jakina. Helburu garbia jendeak ondo pasatzea da. Baina eduki aldetik, T5eko *El club de la comedia*-rekin baditu aldeak. Kokatu egin nahi dugu, gaien aldetik saioa erroto. Umore garratzagoa erabili nahi dugu. Politikariak ere aipatzen ditugu, baina dogmatismorik gabe. Gaurkotasuna erabiltzen saiatuko gara, ahal dugun neurrian.